

Jarduera fisikoko ikastaro eskeintza handia

12. orrialdea

Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketan arratiarrak Azkora eta Lasto Altxatze txapelak eskuratu ditue

Aitzol Atutxak Bizkaia gaz eta Jose Martin Bustinza "Tubi" Gipuzko gaz izan dira txapelak. Andrak parte hartu dabe lehenengoz Badaiotz sokatira talde gaz eta Ruth Linaza tiralari lemoaztarra egon zan bertan. 10. orrialdea



Jakinduriek mundue erreko dau! emonaldia Lasarte Aretoan hilaren 23an

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

280

2017ko urri lehenengoaren 14a
hamabostekaria
www.begitu.org

Dani Alvarez Dimetal Fest-en

Dani Alvarez EITBko kazetaria Diman egongo da urri lehenengoaren 16an, Dimetal Fest jaialdian. Goizeko mahai-inguruan moderatzaile jardungo dau jaialdia sortu zanetik hutsik egin barik egin dauan moduan.

Heavy metal musikan aditua da Alvarez eta Dimako jaialdian hasikeratik sinistu eban, "herri txiki baten eta herritarren ekimenez, hau da, zale eta jarraitzaileen ekimenez egiten dalako". Dimetal Fest gero eta ezagunagoa da eta sendotzen joango dala uste dau. Euskal Herrian heavy metal tradizio ona daukagu eta belaunaldi barriakaz, estiloa eta estetikea aldatuten doazala dino.

Kazetaritza eta El lector de huesos ETBko saioaren inguruan be egin dau berba BEGITUgaz. Zientzia forensea erakusten dauan saioak sari bi jaso ditu daborduko eta arrakasta handia izan dau ikusleen artean.

8. eta 9. orrialdeak



Paco Etxeberria eta Dani Alvarez Lasa eta Zabalaren kasua aztertu eben telebistako programan.

ARRATIA

Gure Esku Dagok konzentrazinoak deitu ditu Kataluniako erreferendumari babesa emoteko

Urri lehenengoaren 15ean konzentrazinoak egingo dira arrastiko zazpiretan Areatzan eta zortziretan Diman. Kantu Bat Gara musika taldea Vic eta Bartzelonara joango da erreferendumaren astegoienean babesa kantuz emoteko. Hara joateko autobusa ipiniko dabe.

Zeanurin urri lehenengoaren 11n egin eben alkarretaratzea Kataluniarako demokrazia eskatuten eban pankarta eta bandera esteladakaz. Deialdiari erantzunez bertaratutakoak Kataluniaren Erabakitze Eskubidea aldarrikatu eben. 5. orrialdea

IGORRE

"Inbiu" Igorreko euskera eguna urri lehenengoaren 16an

Euskera Planeko Inbiu Egunean transmisinoaren garrantzia azpimarratu dabe Igorren. Horretarako hainbat ekitaldi antolatu ditue. Eguerdian, "Zapitik zapira euskerari tira" izenekoa izango da eta igorretzar eta herriko kultur alkarten partaidetze gaz egingo dabe. Arrastian, "Urten euskeraren armariotik" izeneko kanpaina aurkeztuko dau Euskera Planak. Ondoren karaokea eta Jokaldi talde gaz erromeria egongo da Kultur Etxeko plazan. 7. orrialdea



ARTEA

Niko Etxart eta Ruper Ordorika MerkArtean izango dira

Baserriko produktuak erosteko aukerea izateaz gainera, urri lehenengoaren 15 eta 16an, Niko Etxart eta Ruper Ordorikaren kontzertuak egongo dira Artean. Niko Etxart eta Hapa Hapa hilaren 15ean 23:30ean egongo dira gauba girotzen. Hurrengo egunean, Azoka egunean hain zuzen be, Ruper Ordorikaren kantaldia entzun ahal izango da Artean iluntzeko 20:30ean.

Ametz Arzallus eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak be izango dira bertsotan egunean bertan. 5. orrialdea



ARRATIA KOLOREETAN



TIRITU KULTUR ELKARTEA

Tiritu Kultur Elkarte, 2003 urtean sortu zan. Herriko gazte talde batek, Bedian egoan kultur ekintzen eskeintza handitu guran. Gogotsu hasi ginan eta herriko jente asko bazkide egin eta urtean lau edo bost urtekera antolatzen genduzan, herriaren partaidetza altua zan. Egiten ziran urtekerak, kirola, kultura eta arteari lotutakoak izaten ziran.

Urteak aurrera egin ahala 2010 inguruan, Tiritu Kultur Elkarteak bere bidean zehar geldialdi bat izan eban. Herriko jaietan parte hartzean baeban be, urteko ekintzak prestatzeari itxi eutsan, parte hartze eskasagaitik.

Desagertzeko zorian zala, 2014 urtean herriko gazte batzuk izandako idea bateri lotuta, herriko jenteak alkarte berbitzeko

ebatzia hartu eban. Tiritu Kultur Elkarte zubitzat hartuta, Bedian mendiarri lotutako egun bat sortu eben, Kolazinoko Mendi Eguna.

Egun hau hiru probaz osotuta dago; Mendi Martxea, Mendi Lasterketea eta Mendi Bizikletako Lasterketa batez. Holango proba batek emoten dauan beharra dala eta, Tiritu Kultur Elkarte kideak, urte osoan zehar ahaleginak honetan zentratea ebatzi dogu, garrantzia emon eta egun baten herria alkarlanean bildu eta jai giroan alkarregaz disfrutatuko. Beste alde batetik, ekimen honen helburua, Bedia herria mapan ipintea da, eta beste herrietako jenteak be gu non gagozan jakin dagiela, eta gure mendiak daukien edertasunaz eta xarmaz, goiz batez gozatutea.

2015 urtean izan zan lehenengo proba. Hasikera gogorra izan bazan be hortik aurrera, urterik urtera parte hartzea handitu egin da. Goraipatzekoa da 100 bat boluntariok egiten daben lana.

Probez aparte, egun berean beste ekintza batzuk be egiten dira, umeentzako puzgarri eta tailerrak, parte hartzaileentzako bazkaria, erromeria, herri kirolak... izan be egun hau jai handi bat sortzea da helburua. IV. edizioa martxan da, ilusino berberagaz.

Ekimen kultural honek bere kutsu solidarioa be badauka. Izan be, egun horretan parte hartzean daben kirolarien izen emoteetako euro bat, ABEPI Bizkaiko Epilepsia alkarteari bideratzen jako, epilepsia daukien ume eta gazteak egiten daben lana egiten jarraitu dagien.



Amaitzeko, kultur alkartera hurreratu edo festa hau antolatzen parte hartu gura dauan edonori ateak zabalduten deutseguz. Ekimen hau, herriak herriarentzat sortzean dauan beste proposamen kultural bat da, eta laguntzea beti izaten da ondo etorria.

Gure inguruko informazioa gura izan ezkeri edo gugaz hartu-emonetan ipinteko gure webgunea bisitatu daiteke, <http://www.kolazinokomendieguna.com/> edo gure e-postara mezu bat bidali kmebedia@gmail.com.

Tiritu Kultur Elkarte

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehenengoaren 11tik 17ra

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 18tik 24ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri lehen. 25etik Urri bi. 1era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarriotza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkarte.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Alvaro Rabelli eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Emma Aguilar eta Iker Perez (Igorre) eta Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.100 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutzinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauze dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Okan



Udako frutu biribil eta sano gozoa da okana edo okarana (okána, agoskatuta; okerána, Zeberion agoskatuta). Batuaz, aran esaten da. Okaran-arboleari okana eta okan-landarea esaten jake. Batuaz, aranondo da. Okanak hainbat bariedade ditu: okan gorria, okan baltza, okan silbestrea edo basokarana (medizina tradizionalan, hipertensioa bajatzeko erabilia), asto-okana (handienetakoa tamainuz), okan zuria edo klaudia okana (estimaduen), okan-pasa (sikituta egoten dana)...

ERETXIA

Emoiguzue egurra kazetarioi!



LEIRE ETXAZARRA

Kazetaria

Kazetarioi egurra emotea gauza sanoa da. Esaldi honek grazia gitxi egingo deutso nire lankide askori, baina holan da, egurra behar dogu (errazoitutakoa, jakina), edo lantzean behin zaplaztekoren bat hartzea, gaur egungo anabasa digitalean gure lana zein dan ez aitzuteko: jenteari benetako informazioa, zuzena eta gardena emotea.

Inoz baino errezagoa egiten jaku informazioa lortutea. Interneten sartu eta klik egin baino ez dogu behar. Klika, egungo mundu digitaleko berba eta soinu magikoa. Baina eskura daukagun informazio guzti horrek, askotan, faltsukeria asko egiaren jantziagaz mozorrotuten dau. Eta kazetariok, profesionalok, horretan jaustea, egurra jasoteko errazoi nahikoa da.

Gaur egun, badaukagu gertakari asko zuzenean jarraituteko aukera, eta ez nabil ohiko hedabideen gainean berba egiten (tebisino, irratia...), Internet eta sare sozialen gainean baino (Facebook, Twitter, hedabide digitalak...). Baia, zelan jakin ikusten gabizana benetakoa dan, eta, halan bada, zer eta zergaitik gertatzen dan?

Hori da, hain zuzen be, egungo kazetarion ardura garrantzitsuena. Sakelako telefonoai esker argazkiak atera eta bideoak grabetako aukerea daukagunetik, askotan entzun dogu edonor izan daitekeala "kazetari". Baina gertakizun baten argazkia ateratea edo bideoa grabetea ez da kazetari izatea, "albiste-iturri" izatea da. Kazetarion lana da iturrien fidagarritasuna konprobetea, edukia landutea eta informazioa bere testuinguruan kokatutea.

Gertakizun barriak ezin doguz modu gordinean emon, irudi "ikusgarriak" edo adierazpen "mamiak" atxakia hartuta. Ikusgarritasunak eta albistearen emoten lehenengoak izateko beharrak ezin dabe egiagaz daukagun konpro-

misoa apurtu.

Egunero, iturri desbardinak milaka argazki eta bideo igoten dabez sareetara. Horreetariko asko, faltsuak. Kasu horreetan helburua ez da informetea, bideo hori milaka personak partekatutea, "biralizatutea", baino. Zergaitik? Propaganda politikoa egiteko, interes ekonomiko edo personal jakin batzuei lagunduteko... edo 10 minutuz bada be famadu izateko.

Sare sozialen azkartasuna eta berehalakotasuna aprobetxetan dabe edozein guzur edo informazio faltsu mundu osoan bananduteko. Hortik dator post-egia famadua, hau da, guzurra dana egia balitz moduan saldutea. Holan, ezelangoinarririk ez daukien zurrumuruak albiste bihurtuten dira.

Post-egiak kalte nabarmenak sortzean dauz, baina bada bat guztien gainetik: askotan, egia lez saldutako guzur horreek benetako ondorioak eukiten dabezala. Donald Trumpek irabazitako hauteskundeak dira horren adibide garbientariko bat. AEBetako hauteskunde kanpainan zabalduetako 20 albiste faltsu handienak 20 benetakoak baino oihartzun handiagoa euki eben, jente gehiagorengana heldu ziran.

Zurrumuruak eta egia biribilak balira moduan publikautako faltsukeriak presidentetzearen hiru laurden emon eutsien Trumperi. Bere adierazpen famaduenak faltsukerietan oinarrituta egozan, baia hautesle askoren bildurrakaz eta kezakaz bat egitea lortu eban, eta horrek garaipena emon eutsan. Post-egia guzurrez, jentearen sentimentuez eta, neurri baten, kazetarion itxieriaz baliatzen dan tresna arriskutsua da.

Danok konprobau behar dogu informazioa nor, zelan eta zergaitik emoten deuskun, ez kazetariok bakarrik. Baia kazetariok erantzukizun berezia daukagu, askotan publikoaren eta gertakizunaren arteko bitartekariak garalako. Eta ezin dogu egiatzotasuna alde batera itxi, audientzien eta "biralizazioaren" mesederako. Hori egiten badogu... emoiguzue egurra!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enduak Batz gure

MONDRAGON

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIA

Aireportuak

Udea datorrenean, oportetean joateko asmoa euki ezker, burua apurtu egiten dogu nora joan pentsetan. Leku exotikoren bat? Eguzkiaren bila? Biaje turistikoa? Biaje guztiz diferentea egingo neuke nik. Oporraldia aireportu baten igaroko neuke. Mundu osotik mundu osorako hegaldiak daukazan aireportu handi baten.

Betidanik begitandu jataz aireportuak sano leku interesgarriak. Mikrokosmosak dira, mundu txiki bat horma batzuen artean. Hegazkinak alde batetik eta bestetik, eta jentea han barruan, itsaso zabalaren erdiko uharte erdi galduren baten balegoz lez. Uharte horreetan, minutu gitxitan bada be, munduaren punta bateko eta besteko jentek bat egiten dau, jaioterri, berbeta eta pentsakera askotako herritarrak, urlia oporretan, sandia beharrea, berendia bestelako kontuetan.

Aireportu baten hilabete emongo neuke, hara eta hona, jenteari segiduten, nondik nora doazen ikusten, ezetuten ez nauan jentearen kontuak, abenturak eta handikeriak entzuten. Aireportuetan ez da ezer falta. Jentek bertan egiten dau lo, bertan armozau, bazkaldu eta afaltzen dau, komunean garbitu eta *Duty free*etan txukuntzen dau bere burua. Erosketak egiteko leku aparta be bada aireportua. Eta mundu osoko notiziez enteretako leku ezin hobea.

Zuok ez dakit. Baina nik erabagita daukat. Datorren urteko udan, dana ondo badao, aireportu handi horreetako baten ikusiko nautzue.

ZERTZEAN



FELIPE BARRENETXEA

Sorginengan siniskera,
izakera eta ohitura batzuk

Kontetan noan jazoera honen protagonistak, neure gurasoen auzokoak ziran. Igorreko San Kristobal auzunean, Errotabari baserrian, behinola, senar-emazte batzuk bizi ziran, Anestasi eta Kosemari. Anestasi bertakoa eta Kosemari, Gipuzkoa aldetik etorritakoa. Anestasi, andra zehatza, zorrotza eta garratza ei zan, baina batez be, guztiz siniskorra. Kosemari ostera, min labanekoa eta txanpala, baina arda zurrutari amorratua.

Anestasi orduko denporetan pipan erretan ei eban, eta sarritan pipea senarrak bete edo prestetan eutson, berak beste zeregin batzuk egiten zituen bitartean.

Errotariak ziran, eta Artaundik eta inguru guztietatik, arto eta gari zorroak errotan eutsiezan ihoteko edo uruna egiteko. Iho ordez, errotaria, urunaren % 10agaz gelditzen zan, eta horrerik "mendea" edo "mendak" deitzen jakon.

Baserrietan, astero, labasua egiten zan eta labasua egingako guztiari, "Errarie" deitzen jakon. Gari-urunagaz, ogia, pamithea eta tremesa egiten ziran eta arto-urunagaz, artoa eta opila. Tremesa, urun zehatz eralgi bakoagaz, zahidunagaz, egiten zan eta oingo ogi integralaren antzekoa zan, baina latz antza zana lez, ez eban harrera handirik izaten.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Orduko denporetan, San Kristobaletik Dimara, basotik, joakera handia egoan. Dima herri inportantea zan zerbitzu arloan eta abar. Medikua be, Dimara Igorre bano lehenago heldu ei zan. San Kristobaletik Dimarako bide printzipala, erdi aroko kaltzadea, Uxar (Urizar) deritxon torretetik egoan eta beste bide zidor batzuk, San Kristobal barrenetik.

Halango baten, badao gure Kosemari Dimara, zeozer erosteko edo konpontzeko atxakian. Trabena batetik bestera, arda zurrutadea han eta hor, azkeneko mozkorra eta gau iluna heldu jakozan laguntzat. Trabena guztiak itxi orduan, bide zidorren batetik, etxerantza etorri gurean, sasiz betetako karabi zulo batera jausi zan. Eukan mozkoragaz eta gau ilunean, inondik inora ezin eban urten karabi zulo haretatik.

Hurrengo goizean, mozkorra eta gau iluna apur bat argitu jakozanean, zelan edo halan lortu eban zulo hortatik urtetea eta bajoian gure Kosemari etxerantza, gorputz guztia golpez malizkituta, eta odolatan sasiak urrututa.

Etxera heldu zanean, Anestasi adi, etxe kantelean, eta egoera haretan agartu zanean, ha ei zan etxetara!

-Ai lotsabako hordi galdua! Adinon zatoz.

-Ai Anestasi, bazenki zer jazo jatan, ez zeunke holangorik esango.

-Zuri jazo? Betikoa.

-Gaube guztian, sorginak narraz eta aidean, hara eta horra ibili nabe eta goizaldeko hirurretan, Dimako eleizako kanpantorrera eroan nabe.

Arpegi latza, apur bat leunduz: "Jesus!" esan behar zendun. -Bai, "Jesus" esan baneu, bertan behera itxiko ninduen eta kanpantoretik jausikeran, nireak egingo eban.

-Holangorik? Arrazoi dozu, bai; urutuak ur epelagaz garbitu, arto zopa batzuk ipiniko deusudaz, eta zu ohira Kosemari.

Senarra oheratu eta han doa Anestasi, auzora, Ibarondora, barria emotera.

-Sorginik ez dagoala esaten dabe batzuk? Ba begitu bart zer jazo jakon gure Kosemari gijajoari...

BEGI TXINDORRA

Hamar egun baino ez diran falta Argazki Lehiaketara argazkiak bialduteko atzen eguna heltzeako. Oraindino argazkiak ez badozue bialdu, oraintxe da momentua bialtzeko eta sari eder bat eskuratzeko aukerea izateko. Urri lehenengoaren 25a baino lehen begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira argazkiok, argazkiari titulua ipinita eta nok atera dauan, noz eta non esanez.

Gaurkoan dakarguna Lorena Zalduegik Holandako Zaanse Schans herrian ateratakoa da. "Errota gitxi dira gaur egun han. XVII.mendeak dira Zaanse Schans-en geratzen diran errota honeek. Batzuk, egurra mozteko erabilten dira oindino be" dino Zalduegik.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakia
T. 94 631 50 39
Kalegatu Zerbait: 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Elizola, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 505 654 018

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA

Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Kataluniako erreferendumari babesa emoteko konzentrazioak Arratian

Gure Esku Dagok (GED) konzentrazioak deitu ditu Kataluniako urri bigarrenaren 1eko erreferendumari babesa emoteko.



Zeanurin egindako konzentrazioa.

Erredakzioa

Antolatzaileen arabera, 55 persona inguru batu ziran Zeanurin urri lehenengoaren 11n Kataluniako herriarentzat "demokrazia" eskatzen eban pankarteagaz. Hurrengo zitak, hilaren 15ean izango dira, 19:00etan Areatzan eta 20:00etan Diman.

Gaure Eskuetan alkartekoen esanetan, "sensibilidade desbardinatoko jentea batu zan Zeanurin katalanen erabakitzeko eskubidea aldarikatu eta erreferendumari babesa emoteko". Areatza eta Dimako konzentrazioetan be Kataluniako herriagaz bat egiten dauan

testuak irakurriko ditue pankarta eta bandera esteladakaz.

GEDk hilaren 16an "Bilboko Autonomia kalea beteteko deia" egin dau.

Bartzelonara erreferendumaren astegoienean

Arratiako Kantu Bat Gara musika taldeak, Vic eta Bartzelonako kaleetatik zehar abestuko dau erreferendumari babesa emoteko. Hara joateko autobusa ipiniko dabe urri lehenengoaren 29an, 15:30ean Igorren eta urri bigarrenaren 1ean bueltauko dira. Izena emon daiteke, jarlekuak bete arte, 656 784 982 telefonora

whatsapp bat bialduta. Prezioa autobusa bete ala ez bete araberakoa izango da.



ARTEA

Azokea eta jaia Artean


Baserriko produktuen azoka baino gehiago da MerkArtea; egun biko jaia be bada. Holan, Arteako jaiak hurrengo bariku-zapatura luzatuten dira. Niko Etxart eta Ruper Ordorikaren kantaldiak animauko dabez gaubak.

Erredakzioa

Azoka bezperan, urri lehenengoaren 15ean, jubiladuak bazkaria izango dabe herriko plazan. Bazkalostean Iñagariak taldearen kantaldia egongo da eta gaueko 23:30ean Niko Etxart eta Hapa Haparen kontzertua.

Hurrengo egunean, goizeko 10:00etan zabalduko dan MerkArtea Azokan, goiz osoan, ortuariak, gaztaia eta baserrietako beste produktu asko egongo dira

salgai jaigiroan. Giroa alaitzeko, 11:00etan, EinGO Kantan eta Dantzan taldeak betiko abestiak kantauko ditu eta herri kirol eta joko parte hartzaileak egongo dira plazan. 12:30ean, bertso poteoa Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariakaz. Jaiari behar dauan amaiera dotorea emoteko, Ruper Ordorikak kantaldia eskeiniko dau iluntzeko 20:30ean. Hamabietan erromeria egongo da Tximeleta taldeagaz.



Niko Etxart.

Arratia
Ubide eta zeberrioko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21, 20112 Artea

Izen-abizenak:
Izenbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu

IGORRE


Jose Migel Bustinzaren heriotzaren inguruko erakusketea Kultur Etxean

Erredakzioa

Igorretar talde batek eta Egari Zor Fundazioak ekitaldi bi antolatu ditue Jose Migel Bustinzaren heriotzaren 20. urteurrenean.

Urri lehenengoaren 21etik urri bigarrenaren 6ra arte, *Atara daigun egia gerizpetatik argira. Jose Migel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendiren heriotzaren inguruko*

egia osoa jakin nahi dugu izeneko erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxean. Bertan, hemerrotekako materialak eta familiak emondako argazkiak egongo dira ikusgai. Urri lehenengoaren 22an, 19:00etan, mahai-ingurua egingo dabe Kultur Etxean. Egari Zor Fundazinokoak, kasua eroan eban Jone Goirizelaia abogadua eta familikoak egongo dira han.



BEDIA

Bediak Euskera Arlorako Lelo Lehiaketea ipini dau martxan

Erredakzioa

Euskerearen Egunerako, Euskerearen aldeko Lelo Lehiaketea prestatu dau Bediak. Parte hartu gura dauanak euskera erabiltearen aldeko esaldi bat sortu behar dau, Udalak gero lelo modura erabilteko.

Lehiaketan parte hartzeako, urri lehenengoaren 25etik, urri bigarrenaren 20ra bitartean bialdu behar dira proposamenak egilearen datuak batera liburutegi@bedia.biz helbidera. Irabazleak "baserriko produktu naturalez osatutako otzarea" jasoko dau sarizat.

ARRATIA

San Migel jaiak ermita inguruetan ospatuko dira

Erredakzioa

Hilaren 29an da San Migel eguna eta Arratiako hainbat auzunetan dagoz izenpe horretako ermitak; Alzustan (Zeanuri), Artean, Garben (Igorre), eta Urriben (Zeanuri), hain zuzen be.

Eguna mezea eta barauskarriagaz ospatuteko ohitura dago Artean. Alzustan barriz, egun osoko jaia izango da eta bola jokoak erakarriko dau jenterik gehien.

Izan be, San Migel txikin, hilaren 30ean, Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea jokatu da Alzustako bolalekuan.

Urriben aurreko domekan ospatutak dira jaiak.

Garben, hiru eguneko jai egitaraua prestatzen dabiz, San Migel egunean hasi eta urri bigarrenaren 1era arte. Gainera, urri bigarrenaren 8an Garbeko Azokea izango da, baserriko produktuen Arratiako azokarik zaharrenetakoa.

ARRATIA

Erreka ondoko oinezkoen bideak ezetuteko martxea

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM),

Arratiako Ibaiertzetatik VIII. Martxea antolatu dau urri lehenengoaren 17rako.

Erredakzioa

AUMek Europako Mobikortasun Jasangariaren asteagaz bat eginda, oinezkoentzako ibilbideak ezetuten emoteko antolatu dau martxa hau. Aurten VIII. izango da. Erreka ondotik Arratia osoa zeharkatu daiteke oinez eta horixe da partaideak egingo daben ibilbidea.

Urtero lez, martxako egunean atobusa egongo da ibiltariak abiapuntura eroateko. Autobusa Bediatik urtengo da 08:00retan eta Arratiako herri guztietatik pa-

sauko da, baita Dimatik be. Urtekerea Zeanuriko plazatik izango da 08:30ean eta bailarari izena emoten deutsan Arratia errekearen ondotik, Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Igorre eta Lemoatik pasau eta 20 km. egin eta gero Bediako plazara helduko dira ibiltariak. Indarrak barriztu ostean, 14:00etan, Arratiako herrietara bueltetako autobusa urtengo da Bediatik.

Martxan parte hartzeako ez da izena emon beharrik eta doban izango da.



Kotxe Bako Eguna

Egun horretan be, Kotxe Bako Eguna ospatuko dabe Bedian. Bizikletearen erabilera bultzatzeko helburuagaz, herritik zehar bizikleta ibilbidea egingo dabe eta bide segurtasun zirkuitua be egongo da, modu seguruan ibiltzen ikaste-ko. Zirkuituan zein bizikleta martxan parte hartzean dabenen artean, bizikleta bat zozketatuko da.

BEDIA

Herrian andra talde bat sortzea da II. Bardintasun Planeko helburuetako bat

Martxan dago Bediako

Emakume eta Gizonen

Bardintasunerako II. Plana.

Erredakzioa

Plan aurreko diagnostikoan ikusi zan Bedian andra talderik ez dagoela eta planaren helburuetako bat andra talderen bat sortzea izango da. Plana 2020ra arte egongo da indarrean.

Bardintasun Plana bultzatzeko, Bardintasun Batzordea dago. Bertan, alkatea, zinegotzia eta Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Bardintasun Teknikariak

hartzean dabe parte. Murgibe enpresek egin dau plana eta berau egiteko bilerak egin ditue udal langile, politikari, alkarte eta herritarraz, "beharrak eta proposamenak jasoteko" zein "plana kontrastetako".

Andra taldea sortu

Udaleko aurrekontuetan urtero bardintasunerako partida ekonomikoa egokitu eta handitzen joango da Bedia, Jabekuntza Eskolea antolatzen jarraituko dau eta aurten Bardintasun Mahaia sortzea aurreikusten dau Planak. Aitziber Linaza Bediako Bardintasun zinegotziak herrian andra talderen bat sortzea preminazkotzat jotzen dau. "Herrian

ez daukagu andra talderik. Hori da daukagun helburu bat, andra talde bat sortzea". Horretarako, herria "astindu" beharko dabela dino eta egingo diran ekintzakaz asmatu. "Ea ibilteko taldeagaz, ibiltzen joateko atxakiagaz lortzean dogun" dino.

Gizon eta andren arteko bardintasuna lortzeako, aldaketea eragin egin behar dala be uste dau Aitor Sorriketa Bediako alkateak "Asko dago egiteko. Nik belaunaldi barriak antxinakoak lez ikusten dodaz. Edo ez dakigu bideratzen jente gaztea. Nik uste dot horretara joan behar gara, gazteak erakarera. Oindino umeen zaintzaren zama guztia andrak daukie gure herrian".



IGORRE

Transmisinoaren garrantzia azpimarratuko dabe Euskera Planeko Inbiu Egunean

Urri lehenengoaren 16an ospatuko dabe Inbiu Eguna, Igorreko euskerearen aldeko eguna. Goizean, transmisinoa sinbolizetako "Zapitik zapira, euskerari tira" lelopeko ekitaldiak batuko ditu igorretarrak Agirre Lehendakaria kalean. Arrastian barriz, "Urten euskeraren armariotik" izeneko ekimena prestatu dabe.

Erredakzioa

Bezperan, hilak 15, hasiko dira euskerearen inguruko jarduerak. Egun horretan kantu poteoa egongo da 19:30ean Rugby tabernatik hasita, Taberna ibiltaria taldeagaz.

Hurrengo egunean, Inbiu Egunean, 12:00etan hasiko da lehenengo ekitaldia. "Zapitik zapira, euskerari tira" lelopean transmisinoari garrantzia emon gura deusie Igorren. "Batak besteari zapia emongo deuto, euskerea amamak amari eta amak alabeari emoten deusian moduan" azaldu deuto BEGITURI Irati Barrenetxea Igorreko Euskera Teknikariak. Herriko amama batek esango deutzaz lehenengo berbak ilobeari eta ipiniko dau lehenengo zapia, transmisinoa sinbolizetako. "Esango dau ze garrantzi daukan transmisinoak, euskerea emotek belaunaldiz belaunaldi eta eurak ipiniko dabe lehenengo zapia, eurak hasiko dabe katea". Herri-tarrak eta herriko kultur alkarteak

jarraituko dabe katea.

Ekitaldi honen ondoren, 13:00etan trikitilariak egongo dira eta eurekaz egingo dabe poteo musikatua. Hiruretan bazkaria egongo da Kultur Etxeko plazan.

Euskerearen armairua

Bazkalostean, hurrengo hilabeteetan abian jarriko dan "Urten euskeraren armariotik" ekimenaren aurkezpena egongo da. Igorreko Jaietako Mila baietz egunean, armairu bat egiteko erronka planteau jakien herri-tarrai eta erronka bete eben. Armairu horretatik belarria, ahoa eta barrea urten ziran. Baita, Zuztertxu be, Euskera Planeko maskotea. Honek jentea agurtu eta esan eban Inbiu egunean argituko zala ekitaldiaren zentzua.

Inbiu Egunean, ekimena azalduko bideo bat egongo da eta aurkezpenaren ostean, karaokea.

Arrastiko 18:30etik aurrera, egunari amaierea emoteko, Jokaldi taldearen erromeria egongo da.



Inbiu Eguneko bazkarian igorretarrak.

IGORRE

Gazteen lokal bat erre da Olabbarri auzunean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 10ean, Igorreko Olabbarri auzuneko gazteen lokal baten sutea gertatu zan. Ez zan zauriturik egon eta inguruko etxebizitzetako jentek ez eban urten behar izan, baina auzokoak deituta Ertzaintza eta suhiltzaileak bertaratu arren, lokala kiskalita geratu zan.

Udal iturrien arabera, sofa ba-

tek hartu eban su. Lokaleko atea zarratuta egoanez oxigeno gitxiko konbustioa izan zan eta ez zan garrik sortu. "Ondorioak askoz larriagoak izan eitekezan lokalak oxigeno sarrera bat izan baleu edo leihoren bat lehertu balitz. Oxigeno barik be oso tenperatura handia hartu eban lokalak konbustioa eta kearen ondorioz" azaldu deuto BEGITURI Beinat Anzola Igorreko alkateak.

inbiu

irailak 13, BARIKUA
19:30ean RUGBY Tabernatik hasita, KANTU POTEOA "TABERNA IBILTARIA" taldeagaz

irailak 14, ZAPATUA
12:00etan ZAPITIK ZAPIRA EUSKERARI TIRA! BAIETZ LEHENDAKARI AGIRRE BETE!
Erdi Lehendakari Agirrera euskeraren alde zapitik tira egitera!
13:00etan POTEO MUSIKATUA TRIKITILARIAKAZ
15:00etan HERRI BAZKARIA KULTUR ETXEKO PLAZAN
Gero "URTEN EUSKERAREN ARMARIOTIK!" AURKEZPENA ETA KARAOKEA
18:30ean ERROMERIA JOKALDI taldeagaz

EUSKERAZ BIZI SURA DOT

IGORRE Herri-tarren zerbitzua

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO SAHULARITZA GOBIERNO VASCO

DANI ALVAREZ

"Urte pare baten Dimetal Fest benetan handia izan daiten aukerak badagoz"

Urri lehenengoaren 16an Dani Alvarez EITBko kazetaria Diman egongo da Dimetal Fest jaialdiko mahai-inguruan moderatzaile. Heavy metal musikan kazetari adituak, jaialdia sortu zanetik ez dauhutsik egin, eta urtero etorri da Dimara jaialdia finkatzen lagunduten.

Dani Alvarezek 2000 urtetik egiten dau behar EITBn. Batez be Radio Euskadin. Boulevard irratsaioko zuendaria da eta ETBn be, programa batzuk egin dauz. Ezagunena, Paco Etxeberriagaz batera, El lector de huesos, hainbat sari jaso dituana.

Erredakzinoa

Dimetal jaialdiko mahai-inguruak moderetan egon zara jaialdia sortu zanetik. Zergaitik esan zenduan baietz hasikeratik? Zer dala-eta sinistu zenduan Dimako metal jaialdian?

Batez be interesau jatan herri txiki baten eta herri ekimenez, hau da, zale eta jarraitzaileen ekimenez egiten dalako. Europako esperientzia batzuk ezetuten dodaz eta danak arrakastatsuak izan dira. Nik gurako neuke Dimetal Fest egonkortzea eta Dima ezaguna izatea bere heavy metal jaialdiagaitik.

Badakit antolatzaileak Wacken (Alemania) daukiela erreferente moduan. Askotan egon naz Wacken-en eta harritzekoa da: 4.000 biztanleko herria da eta jaialdian 80.000 lagun batzean dira. Antolakuntza oso ona da. Herriak eta jaialdiak bat egiten dabe: herria jaialdia da. Jenteak beso zabalik hartzean dau jaialdia, sano espiritu garbiagaz, prezioak igon barik... Eta hara joaten garan bisitariok ingurumena errespetetan dogu. Badakigu han urteko 350 egunetan behiak egoten dirana, eta saiatzen gara lekua ez hondatzen, ez zikintzen, hondakinik ez ixten. Uste dot oso interesgarria dala eta jaialdia plataforma bat izan daitekela Dima ezagun egiteko.

Hurrago be badago beste adibide bat, Viveiro-ko (Lugo) Resurrection Fest, hain zuzen. Jaialdia ez da Viveiron egiten. Viveiro da hur dagoan herri handia, baina Celeiro izeneko herrixkan egiten da. Hondartza dauka, itsas portua eta 10 urtetan Europa mailako gertakari bihurtu da. Jentea konturatu da, hara joan eta kontzertuak entzuteaz gainera beste gauza batzuk be egin lekiezala, hondartzara edo mendira joan... musikeaz gozateaz gainera, turismoa egin daitekela. Hori dala eta, jente askok, horreen artean euskaldun batzuk, astebete hartzean dabe hara oporretan joate-



Dani Alvarez.

ko.

Hasikeratik interesau jatan Dimako jaialdia. Arratiak asko dauka eskeintzeko Bizkaian nahiko ezezaguna izan arren. Eta asko gustau jatan joan nintzan lehenengo aldian, alkatea be jaialdiko kamiseteagaz ikusi nebalako. Aurten be, Diman egongo naz eta gurako neuke Dimako jaialdia sendotzen joatea.

Ze leku dauka Dimetal Fest-ek metal jaialdian?

Apurka-apurka badoa ezaguna izaten. Egon ala ez, izena ezaguna egiten jakie metalzaleai. Gainera izen soinuaduna eta buruan errez geratuten dana dauka. Egia da, urtean behin baino ez danez, jaialdi amateur izatetik erreferentziatzko jaialdi izaterako saltua egitea gatxa dala. Baina Bizkaian ez dago askoz gehiagorik, Bermeon udagoienean egiten dan Halloween Metal Fest kenduta.

Bidea zabalik dago, eta aukerak be badagoz urte pare baten, Dimetal Fest benetan handia izan daiten.

Aurtengo karteletik zer na-

"Gaur heavy metala egiten daben gazteak, estiloa eta estetikea aldatuten hasi dira"

"Su ta Garren antzokietako jireia sano inteligentea iruditu jata"

barmenduko zeunke?

Aurten amaierara arte geratuko naz momentu honetako Su ta Gar ikusi gura dodalako. Antzokietatik egin daben atzenengo jiran ikusi dodaz. Jireia sano desbardina izan da, familia osorako, eta orain barriro ikusiko doguz basatiago, kementsuago. Nik uste dot taldea heldutasun momentu sano interesgarrian dagoala. Betiko Su ta Gar da, baina gauzak gustu handiz egiten dabez.

Beste talde bat be badago nik asko estimetan dodana. Taldeki-deak ezetuten dodaz. Oso langileak dira eta inoz ez dabe etsi: Ost taldea.

Su ta Garrek heavy metala Arriaga antzokira be eroan dau, beste publiko batera helduz. Zer deritxazu honeri?

Niri oso garrantzitsua iruditzen jata, ze heavy metalak 45 urte bete ditu eta belaunaldi aldatetean egon behar da. Lehen hevia, punkiak langoak ziran, tribu urbano bat. Baina gaur egun heavy metala egiten daben gazteak, euren esperientziaren ekar-

penagaz, estiloa aldatuten hasi dira. Ez da Su ta Gar -edo nazi-noarteko mailan Iron Maiden edo Judas Priest- klasikoan estiloa. Estiloa eta estetikea aldatuz doa. Orain heavy metala egiteko ez dago zertan ule luzea, narruzko txamarra eta erropa baltza jantzi. Gazteak praka eta ule laburrakaz be jotzen dabe heavy metala.

Alde batetik, honek ekarri dau metal klasikoak beharrezkoa da, estiloa barriztu egin behar da. Hori ez da gertatu punk musikeagaz eta geratzen diran punkiak atzenak dira. Metala osteria bai, barriztatu egin da.

Berrogei urtetik gora daukagu-noi, kosta egiten jaku hau onartutea, antxinako mobimentua apur bat faltan botaten dogu. Orain heavy ez da tribu bat, musika estilo bat baino: talde barriak dagoz eta publiko barrira heltzean da. Su ta Garrekoak urrinetik ikusi eben hori. Publikoa zahartzen doala eta ez dala hainbeste jente barri metalera hurreratzen ikusi eben. Eta euren atzenengo jireia oso interesgarria izan zan alde horretatik: heavy musikako kontzertu batera familian joan eitekealako. Hori gauza barria da, desbardina. Eta horrerik esker, heavy metalaren publiko ez hegemonikoagaz konektatu dabe.

Heavy metala lehen oso estilo maskulinoa zan, eta orain gero eta neska talde gehiago dagoz eta publikoaren artean be andra proporzino handiagoa dago. Jente gaztea behar dogu. Horregaitik, Su ta Garren antzokietako jireia, sano inteligentea iruditu jata.

Heavy metala Euskal Herrian osasuntsu dagoala esango zeunke?

Bai. Ez da mobimentu hegemonikoa, baina ez dot uste hegemonikoa izateko bokazinarik daukanik. Jente gaztearen joerak beste batzuk dira. Pop-ak, musika komertzialak, gehiengoaren musikea izaten jarraituten dau. Eta badagoz ondo funtzionetan daben beste jenero batzuk: reggeton-a, esate baterako. Baita heavy metalari jente gaztea kentzean deutsan musika estilo bat be: hip hop-a, hain zuzen. Hip hop-a komertziala da, baina apurtzailea eta antisistema be izan daiteke.

1980ko hamarkadan heavya urten zanean, oso lotuta egoan jente beharginagaz, jente umila baina konforme ez egoanagaz. Heavya ez da inoz izan jenero politizaua, baina baeukan insa-

tisfazino adar bat eta konseba-dorismoaren kontrako burrukea. Ule luzedun mutilai arraro begiratzen eutseen auzunean, espiritu apurtzailea eukan heavyak. Heavy itxurakoak ikusita, atsoak kalea kurutzatzen eben.

Gaur egun heavyak ez dabe inor bildurtzen. Eta ez dago estetika bat eroan beharrik. Heavy musikea egiten daben talde pilo dago eta, San Mames beteteko beste ez bagara be, ezin daiteke esan, hau amaitzen doala, punk-agaz gertatu dan lez.

Heavy barriztu horrek eta klasikoak ze desbardintasun daukie?

Orain musikea azkarragoa da, eta ahotsak ezarrikoak, latzagoak dira. Melodiari ez jako lehengo garrantzia emoten. Lehen abeslari onak bilatzen ziran, gazteen taldeetan barriz abotsak gogorak, ezarrikoak. Hori da lehen eta orain arteko heavyen burrukea. Barriztapena hortik doa.

Jente asko harrituta geratzen da neska taldeak ikusten dituan. Igaz In Mute taldeak jo eban Diman. Kantaria neska bat da eta entzutean eta ikusi ezean, "a zelako piztia" pentsetan dozu. Eta neska bat da. Estereotipoak apurtzen doaz. Nik uste dot hori ona dala.

Zeintzuk dira Euskal Herriko talderik aitagarrienak? Mundu mailan ezagunenak?

Inportanteena, nahiz eta hemen gero eta gitxiago egon, Baionako Gojira taldea da. Mundu mailako arrakasta izan dau. Jente gitxi daki euskaldunak dirana. Uste dot orain New York-en bizi dirala.

Su ta Gar jakina, eta Anestesia, talde historiko bi dira. Gernikako gazte batzuk be aitatuko neukez, Late to Scream, proiektino handiko taldea da-eta.

Gero, Los Angeles del Infierno taldearen kasua historikoa da. Legazpikoak dira. Metalaren gainbera hasi zanean Los Angeles-era joan ziran eta gaur egun jainkoak langoak dira Amerika Latinoan. Ia inoz ez datoz hona, eta mundu mailako fenomeno izan arren, ia inoz ez da eurekaz akordetan. Euskal Herrian heavy metal tradizio ona daukagu.

Radio Euskadiko Boulevard saioko zuzendaria zara. Kazetaritza be heavy metala bezain bizigarria izan daitekela pentsetan dot. Ona bada behintzat. Zer da beharrezkoa kazetaritza ona egiteko?

Denporea behar da gauzai modu ez sutsuan begiratzeko, baina aldi berean gauzak ondo egin gurak emoten dauan suagaz. Eta baliabideak be behar dira. Denporea eta baliabideak.

Jente konprometidua behar da, informazio ona bilatu eta datu egokiak emoten dauana. Egia da



Dani Alvarez Paco Etxeberriagaz.

kazetaritza heavy metala bezain bizigarria izan daitekela.

Horreek dira osagarrietako batzuk. Lanbide honetan engantxauta egon behar da etenbarik, ezpabere ezin da kazetaritza ona egin.

Baliabideak dinodanean esan gura dot alkarrizketak aurrez aurre egin behar dirala eta kazetaria albistea gertatzen dan lekuan egon behar dala. Nik hori oso argi daukat. Nire saio edo medioko bat ez badago hor kontetako zer gertatzen dan, txarto egiten gabiltz. Gakoa da bertan egotea eta protagonistakaz berba egitea. Ezpabere, esan deusuen kontetako dozu. Eta horrek ez dau balio.

Egin dozuzan programen artean, zeintzuk dira eragin handiena izan dabenak?

Urteak bete ahala, perspektiba aldatuten noa. Nire ibilbide profesionala ezetuten dabena pentsauko dabe Ganbara programearen sasoia izan zala oso inportantea maila handiko informazio politikoa emoten gendualako, Boulevard-en be informazio politikoa maila handia da, baina niri galdetuten badeustazu esango deusut inportanteenak izan dirala politikak garrantzia gitxiago eukan programak. Jenteak arduratzen nau gero eta gehiago. Jentea eta jentearen historiak arduratzen nabe. Zer gertatzen jakon jenteari, zerk ardura deusuan, ea umeak pozik dagozan eskolan eta holango gauzak.

Obamak hauteskundeak irabazi ebazanean han egon nintzan, Estatu Batuetan, hauteskunde hareek kontetan. Eta itzela izan zan! Baina ez dakit. Gaur egon naz trenak harrapatuta alabea galdu eban aita bategaz, eta gure munduaren alde humanoa atera gura dot. Hori da aspaldi honetan izan gura dodan begiradea.

Zelan dago mundua, Dani? Zelan ikusten dozu?

Nik uste dot mundua inoz baino

hobeto dagoala. Mundu mailako arazo asko daukaguz: bardin da Bizkaian zein Afrikako iparraldean. Aldaketa klimatikoa, berbarako, hondamendia da danontzat. Desbardintasun ekonomikoa be mundu mailako arazo nabarmena da, baina herrialde askotan lehen miseria gorrian bizi zan jentea aurrera ateraten doa. Lehen ez zan ikusten herrialde arabee-tako jentea edo Asiakoa Bilbon eta Europako beste uriburuetan turismoa egiten. Miseria gorrian bizi diran personak gitxitzen doaz. Eta zientziak be aurrera egiten dau modu harrigarrian. Porzieto kazetariok arreta gitxi emoten deusugu zientziari.

Pentsetan dot munduan mandatari kuadrilla arriskutsu bat daukagula, baina, halanda guzti be, mundua gero eta egonkorragoa dala. Baikorra naz.

El lector de huesos-en esaten dozun moduan, hilketak be errealidadearen parte dira eta horreei erreparatzen

"Pentsetan dot

munduan mandatari
kuadrilla arriskutsu bat
daukagula, baina, ha ta
guzti be, mundua gero
eta egonkorragoa dala.
Baikorra naz"

"Ea gizonak inplikauko
diran indarkeria
matxistegaz amaituten,
da gehien kezkatzen
nauan arazoetako bat"

deutsezue zientzia forensea azaltzen dauan programa horretan. Denporaldi bi egin dozuez, 13 saio eta programeak sari bi jaso ditu: FestVal-en bat eta Pello Sarasola saria. Zelan aukeratu dozuez kasuak?

Paco Etxeberriak ikertutako kasuetan bera gidari izatea izan zan idea. Gero, beragaz hasi ginanean berbetan, zientzia forensearen beste alderdi batzuk landuten hasi ginan eta ikusi genduan alderdi horreek lantzeak beste kasu batzuetako atek zabaldu ten euskuzala. Kasu batzuetan Paco Etxeberriaren parte hartzea ez zan zuzena, baina zientzia forensearen ekarpena interesgarria izan eitekean jentearantzat. Horregaitik, holango kasuak be erakustea ebatzi genduan.

EHUk, Ertzaintzak, kriminologoak eta beste kolaboratzaileak be asko erreztu deuskue lana. Dana dala, kasuak aukeratzea ez da erreza izan, gura gendualako kasuak barriztaileak izatea, historia ezagunak izatea eta zerbaist irakastea.

Asko gustau jata egin dozuen

biktimen tratamendu humanoa. Beti haren lekuan jarrita, ikuslea be bere lekuan jartzea lortu dozue. Programak eurak askotan, Egia, Justizia eta Erreparazio modu bat izan dira nire ustez. Eta hareetako kasu asko hilketak matxistak izan dira. Beste hilketetan legez, honeetan be hilketearen errua hiltzailearena dala agertzen da, eta biktimak errepestatu eta solidariedadez tratetan dira. Gainera, justizia bila dabilzanak gizon bi izateak beste gizonak inpliketan lagundu ahal dauala uste dot.

Jente gitxi konturatu da horretaz, indarkeria matxista kasuak zirala hilketak horreek. Jenteak ez deutso horri erreparatu, apropos aukeratuta egozan arren: indarkeria matxistek eragindako hilketak atera gura genduzan. Egin beharra egoan, oso arazo larria dalako. Argi geunkan, Jose Breton-en kasuari indarkeria matxistearen enfokea emon behar jakola, baina jenteak ez dau hori holan ikusi. Edo ez dau komentatu behintzat.

Ea gizonak inplikauko diran indarkeria matxistegaz amaituten, da gehien kezkatzen nauan arazoetako bat. Mutiko baten aita naz eta eskolan eta etxean gaia asko landu arren, badagoz gauzak, batzuetan nik neuk be ez dodazanak identifiketan, mutilai *macho alfa* kargea sartzean deutseenak. Eta hau familia bakotxara eroanda, bakotxa bere konplejidadeagaz, heredautako estereotipoak... Gizonok matxismoa erabilten dogula da arazoa.

Horregaitik pentsau genduan, ereduak aldatu behar doguzala eta hilketak matxistak zientziaren ikuspuntutik landutea ondo egongo zala. Beti be, ez dala hilketak bat gehiago, hilketak matxistea dala mezuagaz.



HERRI KIROLAK

Bizkaiak irabazi dau Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketea

2017an, Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketearen XXIX. edizioan hartu dabe parte andrak lehenengoz. Sokatiran izan da.

Erredakzioa

Gasteizko Badaiotz Sokatira Taldeak hartu dau parte Araba ordezkatzeko. Txapelketea urri lehenengoaren 9an jokatu zan Saran (Lapurdi) eta Bizkaia nagusitu zan 47 puntugaz. Zuberoak ez eban parte hartu, beraz sei herrialde lehiatu ziran.

Euskal Herrian egiten dan Herri Kirol Txapelketarik handiena da Zazpi Herrialdeen artekoa. Sokatiran, lokotx biltzean, ingude altxatzen, harri jasotzen, txinga eroaten, orga jokoan, zaku lasterketan, trontzan eta azkora lehiatzen dira kirolariak. Arratiakoak sokatiran, lasto altxatzen eta azkora ibili ziran; batzuk Bizkaiko

taldean, beste batzuk Araba edo Gipuzkoako taldeetan.

Orokorrean Bizkaia nagusitu zan. Azkora, Aitzol Atutxa dimoztarrak irabazi eban; Lasto Altxatzen, Jon Loiola dimoztarrak bigarren egin eban bere modalidadean, Gipuzkoatik joan zan Jose Martin Bustinza "Tubi", beste dimoztarraren atzetik. Arabatik joian Badaiotz sokatira taldean be, beste arratiar batek hartu eban parte, Ruth Linaza lemoztarrak, hain zuzen be.

Badaiotz sokatira taldea izan da Txapelketan parte hartu dauan andrazko talde bakarra. Neurketa bakotxean, pisua orekatzeko, 8 andrazko 7 gizonen kontra neurtu ziran, 640 kiloko kategorian. Ba-

daiotzek seigarren egin eban, baina emoitzea ez da sorpresea izan Lemoako tiralariarentzat. "Askoz pisu gitxiago geukan eta aurrera ateratea sano gatxa zan, batez be denporaldia hasi aurretik" baina honegaz herri kirolean jarduten diaben neska txapelketan parte hartzean lagundu gura deusela dino, txapelketan sartzean.

Gizon eta andren parte hartze aukera desbardinak

Euskadiko Herri Kirol Federaziotik dinoe andrak parte hartzean daben lehenengo aldia dala orain arte ez dalako talderik egon. Gizon eta andren partaidetza desbardintasun honek argi erakusten dau, kirolean, gizon eta andren aukera desbardintasuna handia dala. Eta ez bakarrik futbolak legez diru asko mobiduten daben kirolean; baita herri kirolak lango, teoriar herrikiagoak diran kirolean be.

Atutxak kanporaketea Aizkora Txapelketan

Aitzol Atutxak Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatzen dauan Euskadiko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketea dauka urri lehenengoaren 16an, Abadiñoko probalekuan, arrastiko 18:00etan.



Badaiotz taldea.

DUATLOIA

Zeanuriko Mendi Duatloia erreleboka egin daiteke

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 16an, 16:00etan, izango da Zeanuriko Mendi Duatloia. Aurten duatloia erreleboka egin ahal izango da; hau da, binaka egin daiteke, eta batek galapan (7,32 km.) egin eta besteak bizikletan (16,9 km.), eta, bikoteko korrikalariak beste 1,22 km.ak galapan egiteko

aukerea dago.

Zeanuriko Mendi Duatloia, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituan (EHMDZ) dago. Proba Joko Alai alkarteak antolatu dau.

Ordutegia

11:00etan, umeen duatloia.
12:00etatik **14:00**etara, bazkaria.
16:00etan, Zeanuriko Mendi Duatloia.

VII. EUSKAL HERRIKO MENDI DUATLOI ZIRKUITUA
IRAILAK 16 ZEANURI
www.mendiduatloia.eus

MENDI DUATLOIA ZEANURI
JOKO ALAI

ERRELEBOKA BE BAI
Izen emotea: www.kirolprobak.com
15 C / 20 C zapatuan

Sponsors: LumaGorri, Zirauna, berria, Goka, FullGas, Kaiku, POWERACE, LOLI LEIBE DENSA, BARRESA, SPINK, THE B-STER, ZEANURI, ONE.

Race Details:
11.00 tan Umeak
12.00 - 14.00 Bazkaria
16.00 tan Hobiek
7,32 KORRIKA
16,99 BIZIKLETAN
1,22 KORRIKA

ALKIZABAL
ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK
ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

BOLA JOKOA

Bola jokoan neurtuko dira Zeanuriko kofradiak

Jon Urutzurtu

Urri lehenengoaren 30ean, zapa-tuan, Alzustako bolatokia jokatuko da Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketa, San Migel jaien egitarauaren barruan. Udallerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak izango dabe taldeka jokatzen dan txapelketa horretan parte hartzeako aukerea: Alzuak, Alzustak, Asterriak, Ibar-guenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Taldea 4 bolarik osatuko dabe, bolari bakotzak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botaten dauan taldea izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, gerrea jokatuko litzateke.

Danel Beitiarentzat bakarkakoa

Aurtengo udan, bakarkako hiru txapelketa jokatu dira Zeanurin: Alzuan, San Juston eta San Lontzon. Ipiñan ez zan jokatu euria egin ebalako. Leku bakotxean sailkatu ziran lehenengo hiru bolariak hartu eben parte Zeanuriko bakarkako txapelketan, San Lontzo bigarren egunean. Irabazlea, Danel Beitia 14 urteko mutikoa izan zan -igaz bigarren egin eban-, eta biga-

ren eta hirugarren Maximo Beitia eta Joseba Kortazar sailkatu ziran. Hiru bolari honek kofradien txapelketan be parte hartuko dabe: Danel eta Maximo Beitia osabalobak Otzerimendigaz eta Joseba Kortazarrek Uribegaz.

Babeslea eta laguntzailea

Kofradien arteko txapelketa hau antolatzea ezinezkoa izango litzateke erakunde eta enpresa pribaduen laguntza barik, eta Zeanuriko Udalaren babeslea eta Alzustan bertan dagoan Ellauri Hoteleko Kiloterdi Txokoaren babeslea izango dau.

Sariak honako honek izango dira:

talde irabazleak 120 euro eta kilo eta erdiko bi txuleta bere osagarriak bakaltzeko edo afaltzeko aukerea izango dau Kiloterdi Txokoan, Ellauri hotelaren jatetxean. 2. saria: 100 eurokoa izango da eta 3.a 80 eurokoa. Igaz Ipiñaburu-Undurragako taldeak jantzi eban txapela, baina aurten indartsu ei dator Otzerinmendik, bakarkako txapelketako lehenengo bi sailkatuak, Danel eta Maximo Beitia osabalobak, talde horretako bolariak dira eta.

Txapelketea hasi aurretik, 16:30ean umeak be bolan jokatuko eta kirol hau ezagutzeko aukerea eskeiniko jakie; horretarako, euren arteko lehiaketea antolatuko da.

Beraz eskuzuloak, txorra, sinka, hirukoa, txakile, zubile, txirloa, arrapea... eta beste berba batzuk entzuteko aukera izango da Alzustako bolatokia urri lehenengoaren 30ean, arrastiko 17:00etatik aurrera.



Alzustako Beñat Mendia boleak jaurtiten.

FUTBOLA

Hasi dau ligea Arratiak



Arratiak Oartzun B taldearen kontra jokatutako partidua.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia Futbol Taldeak hasi dau ligea. Igazko urtean Bigarren Mailan jokatu eta gero aurten Euskal Ligan dago Arratia. Zapatuan, hilak 9, Oartzun B taldearen kontra jokatu eban Arratiak bere lehen partidua eta 0 eta 3 nagusitu ziran arratiarrak. Lehenengo zatia hutsean amaitu zan arren, bigarren zatian 3 gol egin eban Arratiak, Naia Torrika, Miren Gil eta Amaia Alday izan ziran golegileak. Garaipen honez lehenengo postuan dagoz arratiarrak. Hurrengo partidua hilaren 17an jokatuko dabe, domekaz, Igorreko Urbieta zelaian goizeko 11:00etan eta Mariño taldea izango dabe aurkari, Irun-go taldea Bigarren Mailan egon

zan igaz Arratiagaz batera.

Gizonezkoak ligea hasteko

Arratia futbol taldeko gizonezkoak osteran 23 eta 24ko astegoienean hasiko dabe ligea etxean lurretakoren kontra. Oindino zehaztu barik dagoz eguna eta ordua. Gogoratu Arratiak igazko denporaldian igoera lortu eta gero Lurraldeko Ohorezko Mailan jokatuko dauala aurten.

Lurraldeko Bigarren Mailan dagozan Arratia B eta LemoaHarrobi taldeak osteran urri bigarrenegun hasiko dabe denporaldia eta Lurraldeko Hirugarren Mailan dagoan Lemoaberri taldeak hilaren 23 eta 24ko astegoienean hasiko dau ligea. Gernika Sport B taldearen kontra nertuko dira lemoaztarrak Gernikan.

GALAPAN

Andrak alkarregaz galapan egiteko taldeak Igorre eta Lemoan

Erredakzinoa

2017-2018 ikasturtean hirugarrenez, andrak alkarregaz galapan egiteko ekimena, Gu Be Bai Runners izenekoa, abiatu dabe Igorren eta Lemoan udalak antolatuta eta Iraia Garcia atletaren eskutik. Igorren urri lehenengoaren 12an hasi ziran eta Lemoan ekimenaren aurkezpena egingo dabe hilaren 29an, 19:00etan, Kultur Guneko gela lilan. Bedia be aurten holango talde bat ipini gura dabe mar-tan.

Aurten be Igorren martitzen eta eguenetan izango dira saioak 18:00etatik 19:00etara. Taldea kiroldegi aurrean batzean da. Lemoako egun eta orduak 29ko aurkezpen-egun zehaztuko dira. Partaideak euren erritmoan ibiltzen dira, ikasturtea aurrera joan ahala, teknikak ikasi eta erresistentzia handitzen.

Bedia

Bediak be talde bat sortzeako eskeintzea egin dau, herriko andra batzuk halan eskatuta. Izena emoteko epea urri lehenengoaren 21era arte izango da eta ordurarte ez da jakingo ea jente nahikoak emon dauan izena taldea sortu ahal izateko. Talde honetan andrak zein gizonak emon daikie izena.

DUATLOIA

Duatloi Herrikoia Igorren

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 1ean, Oskar Garro Lagun Taldeak Igorreko Udalaren laguntzeagaz antolatuta, Igorreko V. Duatloi Herrikoia izango da eskoletan. Hiru kategoria egongo dira: 6 urtera artekoa, 7 eta 12 urte bitartekoa eta 13 urtetik gorakoa.

Sei urte arteko umeen probak izango dira lehenengoak. 11:00etan hasiko dira eta 300 m. galapan, 900 m. bizikletan eta beste 300 m. galapan egingo dabez. Ordu erdi beranduago 7 eta 12 urte bitartekoak hasiko dira. Honek 900 m. galapan, 1.200 bizikletan eta beste 900 m. barriro be galapan. Nagusienak, 12:00etan urtengo dira eta 2.400 m. arineketan, 5.800 m. bizikletan, eta 2.400 m. arineketan egingo dabez. Proba amaitutakoan partaideentzat kopautxoak eta oparien zozketea egongo da. Parte hartu daben ume guztientzat egongo da oparia.

Izen emotea

Izen emotea 10:00etatik 10:45era izango da Igorreko eskoletan. Hamabi urte arteko umeak 3 euro pagau behar dabez eta 13tik gorakoak 5 euro.

Oskar Garro Lagun Taldeak duatloia antolatuten dau ziklismo egokitutako txirrindulari igorretarrari lagunduteko. Jasoten dan dirua, alde batetik duatloia bera pagetako eta bestetik ziklisteari entrenamentuakaz lagunduteko eta txapelketetan parte hartzeako erabilten da.

MENDIA

Dimako ermitak ikusteko ibilaldia hilaren 23an

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 23rako antolatu dau Dimako Udalak, Ermiten Ibilaldia. Partaideak goizeko 07:00retan urtengo dira herriko plazatik, 32 km. egin eta 18 ermitaren ingurutik pasetako. Ibilbide osoa egin beharrean, zati bat be egin daiteke; hau da, bako-tzak gura dauan lekuan hasi eta gura dauan lekuan amaitu. Amaitu ostean, kopautxoak egongo da ibiltarientzat.

Ibilbidea

Ibiltariak hurrengo leku eta ermita honeetatik pasauko dira. Herriko plazea, Piedadea, San Pedro parrokia, Artzubi, Munetxa, San Migel Txiki, Iraurgi, Olazabal, Roke Deuna, Untzurdin, Arostegieta, San Inazio, Lamindao, Magdalena, Petralanda, Goikogana, San

Blas urriko, Elgabide, Urzabaleta, Kortabarria, Zamakola, Olalde, San Fresku, Gibiltar, Jentilzubi, Abaro, Baltzola, Lontzo Deuna, Bargondia, Santa Mañe, Santa Apolonia, Bargaun, Egiraun, Zubero, Oba goikoa, San Antolin, San Martin, Ugariotz, Artaun, Bizente Deuna, Bikarregi, Santa Ageda, Bizkorna, Biteriño, San Millan, Santiago, San Balentin eta herriko plazea.



IKASTAROAK

Jarduera fisikoko ikastaroak nagusi dira Arratian

Erredakzioa

Hipopresiboak, Mantenimentuko gimnasia, Pilates, Yoga, Zunba... ariketa fisikoan oinarritzen diren ikastaroak daukie arraskatarik handiena Arratian.

BEGITUREN aurreko zenbakian, Bedia, Dima eta Lemoak eskeintzen dituen ikastaroen barri emon genduan. Hona, Arantzazun, Areatzan, Igorren, Zeanurin eta Zeberion eskeintzen dituenak dakarguz. Izena emoteko epea zabalik dago gehienetan.

Arantzazu

Arantzazun ikasturte osoak dira ikastaroak, hilaren 18an hasi eta bagilaren 15era artekoak, eta ariketa fisikoa egiteko aukerak erreztu gura deutseez arantzuztarrai. Mantenimentuko gimnasia, Zunba, Pilates eta Gimnasia funtzionala dira Udalak eskeinitako ikastaroak. Ikasturte osoa, 70 eta 110 euro bitarteko prezioan dago. Izena emoteko epea zabalik dago, baina ikasturte osoan emon daiteke izena lekua egon ezker.

Areatza

Areatzak Zunba, Zunba txiki 12 eta 16 urte bitartekoentzat, Gimnasia, Eskulanak, Crossfit, Pilates, Euskal jantzak, Jubiladuentzako paseoak eta GAP ikastaroak eskeintzen ditu. Ikastaroak aurrera aterateko gitxienez 10 pertsona taldeak osatu beharko dira. Prezioai jagokienean, Euskal jantzak eta Jubiladuentzako paseoa ikastaroak debaldekoa dira, Yogak 80 euroko prezioa dauka eta gainontzekoak 110 eurokoa.

Izena hilaren 26ra arte emon behar da udaletxean.

Igorre

Igorren, Literatura tailerra eskeiniko dabe hilean behin, Lutxo Egiak gidatuta. Jantza afrikarrak, hilean 3 zapatutan. Sei zapatu iraungo dau Ines Medinaren

Autoestimua garapena arte plastikoaren bitartez ikastaroak eta zemendiaren 4tik abenduaren 9ra arte, edo, urtailaren 13tik zeilaren 17ra egin daiteke. Yoga, Hipopresiboak eta Zirkua ikastaroetan parte hartzeako hiruna talde aurrekusten dira eta beraz, hiru ordutegi dagoz aukeran. Oin-dino konfirmatu barik egon arren, baleiteke Txi kung talderen bat sortzea.

Izen emotea Igorreko Kultur Etxean egin behar da.

Zeanuri

Zeanuriko Udalak eskeintza zabal egin dau aurten be: jarduera fisikoko zazpi ikastaro, arteari lotutako hiru eta edadekoai zuzendutako beste hiru, hain zuzen be. Urri lehenengoaren 25era arte emon daiteke izena Pilates, TRX, GAP aerobic, Entrenamentu funtzionala, Txi kung, Gimnasia eta Hipopresibo ikastaroetan; baita, Sukaldaritza, Pintura edo Josteko ikastaroetan edo-eta Adinekoentzako gimnasia, Adinekoentzako estimulazio kognitiboan edo Adinekoentzako eskulanetan be. Adinekoentzako ikastaroetan taxi zerbitzua eskeiniko da.

Zeberio

Zeberio debaldeko oinarritako informatika ikastaroak eskeiniko ditu informatika ezagutzarik ez daukientzat, urri bigarrenaren 2tik 17ra. Izena udaletxean emon behar da urri lehenengoaren 25a baino lehen.

Helduentzako Gorputz heziketa ikastaroa eta Hipopresiboak be egongo dira Zeberion. Helduak sasoiaren egoteko eta ondo egoteko ikastaroa egiteko aukerea egongo da astelehen eta eguaztenetan Eskola Zaharrean. Izena emoteko epea zabalik dago udaletxean.

Hipopresibo ikastarorako be emon daiteke izena udaletxean. Urri bigarrenaren hasiko dira eskolak eta hilean 20 euro pagau behar dira.

IKUSKIZUNA

Hiru bertsolari, hiru zientzialari eta Kike Amonarriz Lasarte Aretoan

Urri lehenengoaren 23an, 20:00etan, *Jakinduriek*

mundue erreko dau! bertsoa eta zientzia batuten

dauan emonaldia egongo da Igorreko Lasarte Aretoan.

Erredakzioa

Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio izango dira bertsolariak; Jon Larruskain, Elena Lazkano eta Bittor Rodriguez zientzialariak. Saioa Kike Amonarrizek gidatuko dau.

Bizkaia Zientzia Plazaren ekimenaren helburua zientziagazko interesa biztutea da eta horretarako komunikazioa "ezinbesteko tresna". Bertsolaritza eta zientzia buztartuz, sortu da *Jakinduriek*

mundue erreko dau! ikuskizuna.

Ondarroan, Getxon, Igorren eta Bilbon egongo da ikusgai. Beste batzuen artean, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Igorreko Udalaren laguntza dauka.

Sarrerea dobakoa eta libre da eserlekuak bete arte.

Jakinduriak Igorre erre

Igorreko saioan, genetikea, robotika eta elikagaien teknologiaren gainean jardungo dabe. Zientzialariak 10 minutuko berbaldiak



emongo dabez eguneroko gaiak buztartuz eta bertsolariak errima eta doina ipiniko deutseez gaiak. "Dopin genetikoak, superkirolariak diseinatzeak gai?", "Robotak zure lagun min onenak" eta "Hala ere, jango zaitut" dira Igorreko gaiak.

LIBURUA

Dimako bernaolatarren historia jaso dau Ruper Lekuek

Lan genealogikoa eta historikoa egin dau Ruper Lekue

Bernaolak *La huella de Bernaola en Dima* liburuan.

Dimako bernaolatarrak aztertu ditu, familia baktaxa bere baserri edo propiedadeari lotuta.

Erredakzioa

Hau da, bernaolatar baten linajea nozdiak ezetuten dan baserri baten, eta noz amaituten dan baserri horretan. Egileak lanaren pdf.a interesa daukien guztiai bialduko deutse posta elektronikoz. Baita diasporan dagozan Euskal Etxe guztietara be.

Bere arbasoen barri jakitearren hasi eban Ruper Lekuek ikerketa

lana orain dala 10 urte. "Nire bigarren abizena Bernaola da eta orain dala hamar bat urte, arbasoen bila hasi nintzan. Arbasoen historia apur bat ezetutearren, familiakoa. Eta artxiboetan ikusi neban hainbat eta hainbat dokumentu egoala bernaolatarrak buruz, bai Artxibo Historikoan, bai Foru Aldundiko artxiboan, eta beste artxiboetan. Orduan, esan neban zergaitik ez

bernaolatarren historia bat egin?".

Gaur Indusin (Dima) dagozan baserri bi dira Bernaola: Bernaolagoikoa eta Bernaolabekoa. Handik hasi zan arrasto bila. Dimako eleiz artxiboa eta udal artxiboa erre egin ziran eta kanpoko dokumentazioa arakatu behar izan dau egileak.

Hitzaurrea, esker onak, eta gero Dimako Historia apur bat jasoten dau liburuak, Historiaurretik hasita. Liburuaren ardatza Bernaolako etxe bien artean 1790etik 1794ra egon zan pleitoa da. Eta gero lan genealogikoa.

Pdf.a eskuragarri

Lan hau ez da liburudendetan egongo. Izan be, hogetabost liburu baino ez dira inprimatu, familiaren artean bananduteko. Baina interesa daukienak pdf.a eskuratu daikie ruperlekue@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

IKUSKIZUNA

Jentilak Diman ekimenerako eguna adostu dabe Udalak eta Txumuluxueta alkarteak

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 14an izango da aurten *Jentilak Diman* mendibilbide mitologikoa, Indusitik igon eta Baltzolako koben inguruan. Ekitaldia maiatzaren 20rako egoan aurreikusita, baina bertan behera geratu zan Udala eta Txumuluxueta alkartearen artean antolakuntzako desadostasunakaitik. Dana dala, ostean egindako

batzarrak, "frutua emon dabe", eta adostasunera heldu dira Udala eta Txumuluxueta Elkar-tea. Erispide teknikoetan, adituen erispideak erabiliko dabez bertako ondarea jagoteko.

Jentilak Diman ikuskizunak, ibilbide mitologiko baten bitartez, euskal mitologia jenteari hurrertzea dauka helburu. Beti be, Baltzolako koba inguruko ondarea jagonda.



2015eko *Jentilak Diman* ikuskizuneko irudia.

ONDAREA

Igorreko paisaje bizia ezetuteko aukerea Angel Larrearen eskutik

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 1ean, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Igorreko paisajea ezetuteko ibilbide gidatua antolatu dau Udalak. Aramotz magaletik Igorreko Ibarretara izango da ibilbidea. Angel Larrea Beobide historialariak azalduko dauz paisajean eragina izan daben gertakizun garrantzitsuenak. Urtekerea Igorreko Kultur Etxetik 09:30ean izango da.

Aurten, Ondarearen Europako Jardunaldien gaia, "Paisaje bizia, Bizkaiko paisajean eraikuntza" da. Hori dala eta, Igorren antolatutako ibilbidean, bisitariak aukerea izango dabe Igorreko paisajea sakon ezetuteko; hau da, non egin diran aldaketak eta non egon diran populazioaren guneak Historian zehar. "Aramotz magaletan hasita, Arratia ibaia- ren inguruan dagozan ibarretan

amaituko da, hau da, gunerik zaharrenetatik abiatuta, gaur egun herriko gunea dana erakutsiko da. Bertan, herriko paisajean eragina izan daben gertakizun historiko garrantzitsuetan eta egin diran aktibidade ekonomiko nagusietan arreta berezia jarriko dogu" dinoo udaletik.

Ondarearen Europako Jardunaldiak urri bigarren osoan zehar izango dira.



MUSIKEA

New York eta San Franciscotik jirea egin dau Borja Estankona musikari arratiarrak

Borja Estankona musikari arteaztarra aspaldi konturatu zan atzerrira joateak sortzean deusala konposatzeko barne egoera ideala. Hori dala eta, garagarrilaren 8tik, abuztuaren 28ra arte, New York eta San Franciscon egon da, kontzertuak jo eta kantu barriak sortzean.

Erredakzioa

Urteak dira Borja Estankonak musikearen munduan diharduala eta hiru disko ditu kalean, *Estankona*, *Fruitua* eta *Ardatza*. Kontzertuak be asko jo ditu. Arratian, aitagarrietakoa, maiatzeko Lemoakustik Fest-en emondakoa da. Honek, New York eta San Franciscon eskeinitako kontzertuak, lotura zuzena euki dau.

Sormenari on egiten deusala eta atzerrira joaten da Estankona. Orain dala urte bi Kretan egon zan, "Eskola baten egon nintzan, Laberynth izenekoa. Jaialdi bat egiten dabe, eskola seminarioak, musika mediterranea eta Israel, Egipto, Balkaneetako musikea... Holango armoniak eta holango instrumentuak jotzen erakusten dabe. Sano musika eskola ona da eta hor parte hartu izan dot. Ho-



Borja Estankona New Yorken.

rrek emoitza onak izan dauz sormenari jagokonez" azaldu deutso BEGITURI Borja Estankonak.

Baina justu kontrakoaren bila joan zan arteaztarra New York eta San Franciscora. Oraingoan ez eban gura herri txiki, itsaso, natura eta eskola "formatorik": uri handiak, musika aldetik %100 rock, "azkena" eta modernoa, eta taberna antzokietan jotea, hain zuzen be. Holan, beste batzuen artean, New York-eko Pianos, Prakside Loung edo Starr Bar-en eta San Franciscoko The Plough and Stars edo Revolution Café-n kontzertuak jo ditu.

Euskaldun bat Estatu Batuetan blues-a jotzen

Estankonak 45 minutuko erreperitorioa prestatu eban Estatu Batuetarako. Hiru diskoetako kantuen selekzio bat eta geroago Euskal Herrian sortutako kantu batzukaz. Editau bako kantu horreen artean, blues bat egoan, "Nora garamatza" Lemoako jaialdi akustikoan jo ebana. "Lehenengoz egin dodan blues-a da eta non eta Estatu Batuetan konprobau izan dot funtzionetan dauala euskalduna izanda! Ez naz barneratu bako gauzak egitearen aldekoa baina funtzionau egin dau, han jantzaren bat be sortu zan" dino Estankonak.

Hemen eta han sortutako kantuak, laster izango dau laugarren diskoa aterateko beste kantu. "Beste hiru abesti edo egin beharko dodaz diskoa osotuteko. Horretan nabil".

Emongo dauan hurrengo kontzertua Larrabetzun izango da urri bigarrenaren 22an, 18:30ean Hori Bai Gaztetxean.

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 15
ARANTZAZU

19:30ean, Isaak Atutxaren *Arantzazu: nor/zer... non. Historia baterako materialak (I)* liburua aurkezpena, udal lokaletan.

AREATZA

19:00etan, 15 minutuko kontzentrazioa Kataluniako erreferendumari babesa emoteko. Plazan. Dagigun Areatza Elkarteak antolatuta.

ARTEA

14:00etan, jubilatuentzako bazkaria plazan; 17:00etan, Inagariak-en kantaldia; 23:30ean, Niko Etxart eta Hapa Haparen kontzertua.

DIMA

20:00etan, GEDK antolatutako ekitaldia Kataluniako erreferendumari babesa emoteko.

IGORRE

19:30ean, Rugby tabernatik hasita kantu poteoa Taberna ibiltaria taldeagaz.

ZEANURI

17:00etatik 19:00etara, Arratiako OEEK antolatuta, preminazko bilketea: kanpindendak, gizonezkoentzako erropa beroak, mantak eta zakuak, olanak eta plastikak eta galtzean ez diran janariak. Kultur Etxeko aterpean.

URRI LEHENENGOAK 16

AREATZA

Gorbeia parke naturalak antolatuta, mendi urtekera Ubideetik Oketara iluntzean. Izena emoteko 94 673 92 79 telefonora deitu edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus-era idatzi.

ARTEA

MerkArtea. 10:00etan, Azokearen hasikerea; 11:00etan, herri kirol joko parte hartzaileak plazan; 11:00etan, betiko abestiak EinGO Kantan eta Dantzari taldeagaz; 12:30ean, bertso-poteoa Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikanoagaz; 20:30ean, Ruper Ordorikaren kantaldia; 00:00etan, erromeria Tximeleta taldeagaz.

BEDIA

Eleizalde Bedia Jubiladu eta Pensionisten bazkaria. 12:30ean, mezea Bediako eleizan alkarteko hildakoaren memorian; 14:30ean, bazkaria Batzokian.

DIMA

Dimetal Fest. 11:00etan, Mahai-ingurua

Gazteetan eta umeentzako jarduerak plazan; 13:00etan, metalpotea; 14:15ean, Harriti taldea frontoi txikian; 15:00etan, bazkaria frontoi handian; 17:00etan, Herri Metal Olinpiadak; 18:15ean, umeentzako dinamika plazan; 18:15ean, Evil Seed Gazteetan; 19:05ean, Last Days of Eden eszenaleku nagusian; 20:00etan, Ost Gazteetan; 20:55ean, The Faithless Gazteetan; 21:50ean zozketea eszenaleku nagusian; 22:00etan Suta Gar; 23:45ean, Raven's Gate Gazteetan; 01:00etan, Drakum eszenaleku nagusian.

IGORRE

Inbiu Eguna. 12:00etan, "Zapitzi Zapira euskerari tira! Baietz Lehendakari Agirre bete!"; 13:00etan,



Niko Etxart eta Ruper Ordorika Artea

MerkArtea dala-eta, Niko Etxartek eta Ruper Ordorikak kantaldiak eskeiniko dabez Artea. Niko Etxartek urri lehenengoaren 15ean, 23:30etik aurrera joko ditu bere kantu ezagunenak; Ruper Ordorikaren txandea hurrengo egunean, 20:30ean izango da.

Niko Etxartek (Altzürükü, 1953) 1974an, Odol Berri taldea sortu eta lehenengo singlea kaleratu ebanetik gaur arte, ibilbide luzea egin dau hainbat taldeetan edo bakarlarari moduan. Bere kantuak sano ezagunak egin dira urte horreetan guztietan, "Izan Gira" edo 2007ko Korrikarako egindako "Heldu Korrikari", berbarako.

Ruper Ordorika (Oñati, 1956), euskal musikaririk "goretakoa" da, ezagun eta jarraituenetakoa. 1980an *Hautsi da anphora* diskoa grabatu ebanetik, ia 20 disko kaleratu ditu eta ehundaka kontzertu eskeini. Bakarlarari ibilbideagaz batera Hiru Truku taldea be sortu eban 1994an. Gurera bere gitarreagaz eta Mugalaris-egaz etorriko da.

poteo musikatua trikitilariakaz; 15:00etan, Herri bazkaria Kultur Etxeko plazan; ondoren, "Urten euskeraren amariotik" aurkezpena eta karaokea; 18:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz.

LEMOA

07:00etan, Lemoa Txirindulari alkarteak antolatuta, Lagos de Covadonga urtekera futbol zelaitik Ibilbidea: Llanes-Lagos de Covadonga (65 km.).

ZEANURI

Zeanuriko III. Mendi Duatloia. 11:00etan, umeen Duatloia; 12:00etatik 14:00ak arte, bazkaria; 16:00etan, Duatloia.

URRI LEHENENGOAK 17

ARRATIA

Arratiako Ibaierzetatik VIII. Marba. 08:00etan, autobusa Bediatik urtekera puntura Arratiako herrietatik pasata; 08:30ean, urtekera Zeanuriko plazatik; 14:00etan, bueltako autobusa.

BEDIA

Kotxe Bako Eguna. 10:30ean, herriko zehar ibilaldia bizikletan (kaskoa erosi behar da); 11:30ean, bide segurtasun zirkuitua; 13:00etan, parte hartzaile guztien artean bizikleta bat zozketatuko da.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak, Oroitze Eguna. Besaiden (564 m.).

URRI LEHENENGOAK 20

ARTEA

09:00etan, Mikel Deuna Jubiladu eta Pensionistak

antolatuta, Iruñara ibilaldia. Udaletxean.

IGORRE

Hilaren 27ra arte, Igorreko Jubiladuen Elkarteak antolatuta, Portugalera biatzea.

URRI LEHENENGOAK 21

IGORRE

19:30ean, *Atara daigun egia gerizpetatik argira. Jose Migel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendiren heriotzaren inguruko egia osoa jakin nahi dugu* erakusketaren inaugurazioa. Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 22

IGORRE

19:00etan, Jose Migel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendiren heriotzaren inguruko mahai-ingurua. Familiakoak eta Jone Goirizelaia abogadua egongo dira. Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, luzaketa tailerra.

URRI LEHENENGOAK 23

ARANTZAZU

Arginax Mendi Taldearen urtekera Aralarra.

AREATZA

Laminio Mendi Taldeak antolatuta asteburuko urtekera Picos de Europa.

20:00etan, Rusty-ren kontzertua The Quiet Corner-en.

BEDIA

Yeuri auzoko jaiak.

DIMA

07:00etan, Ermiten Ibilaldia. 32 km. Plazatik.

IGORRE

20:00etan, *Jakinduriek mundue erreko dau!*, 3 bertsolari eta 3 zientzialari aurrez aurre. Bertsolariak: Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio; Zientzialariak: Jon Laruskain, Elena Lazkano eta Bitor Rodríguez. Lasarte Aretan.

URRI LEHENENGOAK 24

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen mendi urtekera. Bustablado-Porracolina (1.414 m.).

URRI LEHENENGOAK 25

BEDIA

Uri bigarrenaren 20ra arte, Euskerearen aldeko leloen Lehiaketa.

URRI LEHENENGOAK 27

AREATZA

09:00etatik 11:00etara, Lanbideren puntu mobikorra plazan.

BEDIA

17:30ean, Onditz Mendizabalen eskutik, Liburu-maleta ibiltaria liburutegian.

URRI LEHENENGOAK 28

ZEANURI

Hilaren 29ra arte, perretxikoen gaineko erakusketea, argazki panelak, Jubiladuenean.

URRI LEHENENGOAK 29

BEDIA

18:00etan, txotxongiloak plazan. (Euria egin ezker, ludotekan).

IGORRE

Garbeko jaiak.

LEMOA

19:00etan, Gu Be Bai Runners Lemoa proiektuaren aurkezpena Kultur Guneko gela lila.

ZEANURI

08:30ean, Gorbeia Jubiladuen alkarteak antolatuta, mendi urtekerak. Aukera bi: perretxikotan eskolaumeakaz batera edo ibilaldia Saldropo inguruan. Sagama portalean.

URRI LEHENENGOAK 30

AREATZA

20:00etan, The Bilus Moon taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE

Garbeko jaiak.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, GPS ikastaroa.

URRI BIGARRENEN 1

IGORRE

Oskar Garro Lagun Taldeak antolatutako Duatloia Herrikoa. 10:00etatik 10:45era, izen emotea eskolatan; 11:00etan, 0-6 urte bitarteko probak; 11:30ean, 7-12 urteko probak; 12:00etan, 13tik gorako probak. Ondoren kopautxo eta sari banaketak.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 09:30ean, Aramotz magaletik Ibarretara ibilbide gidatua Angel Larrearen eskutik. Kultur Etxetik.

Garbeko jaiak.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurri zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonon.

DANERIK

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiltz, ordutegi barik eta komisino handiak pagatuta. Deitu 662 568 707 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

ETXEA ALOKAIUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukatz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea itxeko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeera eta 2,60 m.ko altuera. Deitu 675 712 841 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Suzien Mendi Klubak emondakoa erropa prenda bat.**

Angel Larrea (Galdakao)

2 **Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.**

Mertxe Ortuzar (Zeanuri)

3 **Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,**


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.



DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Irakasle. Letra bat. 2.- Barre. Barioa. 3.- Bibliako pertsonajea, Abrahamen iloba. Entzuten ez dauana. 4.- Bokala. Dardara. 5.- Azkar. Nitrogenoa. 6.- Gaixobera. 7.- Txinako hegoaldeko ibaia. Tinbrearen soinuaren onomatopeia. 8.- India. Birritan, polito. 9.- Letra bat. Aho inguruko ule.

GOITIK BEHERA

1.- Hamaika, asko. Lotu, heldu. 2.- Urtaro. Okaran. 3.- Edergura. Boroa. 4.- Musika nota. Umeen berbetan, eta olgetan "ikusit zaitut". Parea. 5.- Uranioa. Patxadaz. 6.- Dirakian uraren inarrotea. Zirt edo zart. 7.- Heldu. Narria, narra.



Topau zazpi plagaren izenak.



AKI MI KO

Iman Olatu



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheha
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheha - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 64 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: vnozulu@euskatel.net

MIKEL ETXEBARRIA

"Ardiak eskiletan ibiltea benetako bizioa da niretzat"

Mikel Etxebarria dimoztarra da eta inguruko eskiladorea edo ardi-moztaile profesional bakarretako bat. Lantzean behin Jon anaiari lagunduten deutso Zeanuriko Ipiñaburuko gaztaitegi eta ardi-esplotazioan. Baina, hogeta hamahiru urteko gazte honek ardi-lanea mozte dauka benetako ogibidea, munduan zehar afizino handiz egiten dauan langintzea. Espainiako eta Euskal Herriko txapelduna be bada ardiak eskiletako lehiaketetan.

Alvaro Rabelli

Moztailea zara, nozdik?

Hogeta bat urte neukanetik. Gipuzkoako moztaille baten eskutik hasi nintzan ikasten. Oñatiko Arantzazuko artzain-eskolan kursoa emon eustan eta harrezkeroko beharrean nabil. Eskiladore edo moztaille profesionala naz.

Ez zarie asko, ezta?

Ez, ez gara asko. Hemen Euskadin dozena bat eskas gara, danak Bizkaikoak. Nafarroan beste hainbeste izango dira, baina gehiagorik ez. Gure inguruan gero eta behar gitxiago dago. Gero eta ardi gitxiago dago pastoreak jubiletan diralako, eta gazteak ez dabe ogibide horretan jarraitu gura. Gogorra da. Gainera, hemen artaldeak beti txikiak izan dira. Horregaitik kanpora be urteten dogu. Ni Euskal Herrian, Espainian, Frantzian, Hego Amerikan, Australian eta Zelanda Barrian ibiltzen naz. Orain banabil Arabako mutil gazte bategaz, ea animetan dodan moztaillea izatera.

Zertan da moztaillearen beharra? Denporaldiari oso lotua dago?

Bai, baina esan geinke gaur

egun denporaldia luzatu dala. Orain urtean birritan egiten da. Lehenengo ardiak kumeak egin baino lehen, martia eta aprileko hilabeteetan, ardiaren erditzea lagundutearren. Ostean, maiatzetik garagarilerara denporaldi betean egoten gara. Orduantxe egiten dau bero eta ardiak lanea moztu behar jakie. Hori, jakina, gure Ipar hemisferioan, ze, hegoan beste denporaldi bat dago beste hila-bete batzuetan. Gaur egun, gehien bat, ardi-lanaren mozketea garbitasunagaitik egiten da, batez be gaztaia egiteko diran esplotazioetan.

Ze teknika erabilten dozu ardi-lanea mozteko?

Australiakoa, edo hobeto esanda Zelanda Barrikoa deitutakoa. Artaziz mozte iraganeko kontua da. Teknika hori erabilten dogu ardiaren ule kapea pieza bakar baten aterateko, gero, transformaziorako errezagoa da eta kalidade handiago dauka. Hori, batez be merino errazako ardiakaz egiten da. Horregaitik gure inguruko latxa ardiak ez dau balio lanea emoteko, ez dau kapea egiten, ulea baino ez, eta izenak adierazoten dauan lez, latza da, azkurea eragiten dau. Gaur egun ez

dauka aprobetxamenturik, moztu eta bota egiten da.

Herri kirola be bada.

Bai, ni Espainiako selekzinoko kirola naz. Horretaz gain Espainiako igazko eta aurtengo txapelduna naz. Euskal Herrikoa be bai. Espainiako txapelketak Extremaduran, Burgosen eta Zaragozan egiten dira; Euskal Herrikoa Uharte Arakilen. Munduko txapelketari jagokonez, bi urtean behin egiten da. Aurten Frantzian izan da eta hurrengo Zelanda Barrian, 2019an. Atera kontuak, hemen herri kirola da, baina Zelanda Barrian Joko Olinpikoaren parekoa da. Herri haretan rugbiak ia beste garrantzia dauka ardi-lanaren mozketeak. Euskal Herriko selekzinoa sortzeako ahaleginak egin doguz, baina momentuz ez da posible izan; halanda be, hoba balego.

"Hauxe da ogibide honek emoten duetan gauzarik onenetakoa, munduan zehar bidaiatu ahal dot"

**Australia eta Zelanda Barria, ardiaren paradisia akaso?**

Bai, dudarik ez. Askotan joaten naz bertara, ikaragarria da. Ni ikasten joaten naz, beti dago zoezer ikasteko. Han eten barik dagoz teknikak barritzen. Guk, ostera, artzaintza mundua galduta dauka, aspaldian galdu egin genduan. Gainera, hauxe da ogibide honek emoten deustan gauzarik onenetakoa, munduan zehar bidaiatu ahal dot. Holan, bertatik bertara ezetu neikez jentea eta hango ohiturak, etxe barruraino sartzean naz, turista arrunt batek sekula egingo ez leuken moduan.

Zelangoa da moztaille baten lan eguna?

Lan egun normal baten ehun eta berrogeta hamarretik berrehunera ardi eskiletan dodaz. Beharra gogorra da, sano fisikoa, arnes ganean makurtuta, lepoa eta hankak nekatzen jakuz. Baina zein ogibidetan ez? Hemen behintzat burua argi dozu, gainera gure artean, kuadrillan dihardugunean, olgetan ibiltzen gara, alkarrerri erronka eginez, ardi-lana gehien nok moztuko. Behar honetan inportanteena konfiantza da, zuri mozteko deitzean

deutsue ezetuten zaituelako. Zuzan konfiantza daukie badakielako zelan mozten dozun. Egon behar dozu beti prest deitzean deustuenean, sarritan beharra aurreratu ala atzeratu egiten da denporearen arabera, ze, bakarrik lanea moztu leiteke beroa egiten ez dauanean. Euritan inoz be ez. Eta, tira, soldatea aterateko defendiduten gara.

Nahitaez artzaintza mundukoa izan behar dozu eskiladore jarduteko?

Ez, ezelan be ez. Moztailleak ez dau zertan, esaterako, pastorea izan. Ez dozu zertan alde zurretik mundu horretakoa izan. Izan be, Espainia aldean berbarako, orain badira uri-urikoak diran moztailleak, artzaintzeagaz bape be hartuemonik euki izan ez dabena. Edonor hasi leiteke ogibide honetan.

Eta etorkizunean?

Oraingoz ondo ikusten dot neure burua, gogotsu. Eskiletan ibiltea sano gustetan jata, niretzat bizioa da. Baina, halanda be, badakit gogorra dana, lan fisiko handia egin behar da. Beharbada, berrogeta hamar urtegaz nekatuta egongo naz. Nok daki.

Arratiako AEK

- Matrikula zabalik
- Maila guztiak
- Ordu-tegi zabalak
- Azterketa ofizialak (1., 2., 3. eta 4. maila)
- Arratiako udal guztiak diruz lagunduta

Agirre Lehendakaria 4, Igorre
94 631 56 57 - 607 632 916
arratia@aek.eus

aek
euskara praktikoa

**% 100
AFEKTIBOA**

Eman izena

